



**kale**

Elgetakoa aldiakaria ekainak 58ak.

**Goibek**



**Plaza bete ostean  
Tafallara joateko  
aukera**

*Maderas Gallastegi, s. a.*

**MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

**Jaixak aurrera etaratzten lagundu daben danei:**

Elgetako ferixa nagusiko jaixak antolatu ostian, elgetarrak jaixak aurrera etaratzeko borondatezko lanak egin dittue bai jai aurrentik eta bai ondorenian. Bateko baillak ipintzia, besteko mahaixak ipiñi eta kentzia, ferixia antolatzea, soiñujo-  
liak goiz jaiki biharra, Udaletxeko bihargiñak zoratu biharrian... eta danak banan-banan esan biharrian, orokorrian lan haundi zein txikitan jardun daben danendako zuzentzen dotse JAIXEN BATZORDIAK eskerrik beruena.

Jaixak danondako gustokuak izateko eta batzuk dana egin biharrian danok zeozer egindda aurrera jotia errezagua dala jakitñian, eskerrak eta datorren urtian berriz ikusi arte.

Agur bero bat eta eskerrik asko.

Elgetako jaixen batzordia

**Jaixak mundial! eta laster oporrak**

Jaixak mundial pasau ez dittuanik ez da egongo seguruenik. Lan haundixa egin da jaixak ondo urten deixen. Sekula baiño jente gehixau ikusi dogu mobitzen eta horrek zeozer esan gura dau. Lanian jardun daben danei zorionak!!!

Goitb-ko kamarak be ikusi dittugu kalian, lan piskat egitten. Jaixetako saio berezi bat grabatzen ibilli ziran hiru egunian zihar. Bestiak beste ferixia, jubilauen eguna eta jaixetako ekintzarik arrakastuena izan dan tanborradia ikusi dabe Arrasaten, Gatzagan, Aretxabaletan eta baita Eskoriatzan be. Penia bada be, oindiok ezingo dogu ikusi Goitb Elgetan, hala eta be, uda osterako normaltasun osuakiñ ikusteko aukeria izango dogu. Bittartian, Arrasateko lagunen batek edo ezagunen batek grabautako bideua ikustia baiño ez jaku geratzen.

Honezkero badakixue Goitb Elgetan ikusteko Bergarako alkatiak baiezta emotia besteik ez dala falta. Bergarako herrixa aspaldittik eskatzen dago Goitb ikusi ahal izatia eta espero dogu laster baten herritarren nahixa beteko dala. Elgetan Udaletxeko zinegotzi guztiak onartuta dake seiñalia Elgetara ekartzia, baiña zoritarrez, Bergarakuen zaiñ egon bihar.

Telebista etorri bittartian Goibekokalek jarraituko dau eta abuztuko oporrak hartu baiño lehenau beste zenbaki bat etarako dogu. Hurrengo alia 24an etaratzeko asmua dakagu, laster baten.

Ordura arte, ondo bizi!!!!!!

Goibekokale

**ESTAMPACIONES  
INTXORTA S.A.**



AENOR

**ER**

Empresa Registrada

ER-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



## Oporrak

**L**aster datoz zorioneko oporrak. Batzuk lehenago beste batzuk baino. Hemen ere klaseak daude eta. Baina utz ditzagun bakean ikasle eta irakasleak, hauek beti kexa ugari eta pribi-

ligiatu batzuk besterik ez dira-eta. Beno, neuk ere berdina egiten nuen kasta horretakoa nintzenean.

Gizarte konpetitibo eta estresante honetan. Lan-eternaldi bat egitea beharrezkoa eta osasuntsua dela deritzot.

Baina, zertarako oporrak? Zer egin? Kanpora joan eta zenbat eta urrutiago hobea. Hau da gaur egun gehienek diotena. Itzultzean munduaren beste aldeko puntan zein bazter politak dauden esateko, nahiz eta hegazkinetik ikusitako uhartea izan gogoan. Edo toki exotikoetan aterako argazkiak erakutsi sekulako "txapa" sartzen duten bitartean. Gameluak, fokak edo elefanteak bistan, "rolloak".

Bidaia ez dira Galiziara edo Zuberoara, noski. Dirurik ez izan arren kredituak eskatzen omen dituzte bidaiatu gabe ez gelditzeko. Bidaien destinoa honako edozein: Australia, Cancun, Borneo edo India. Toki-izenak ere zenbat eta exotikoagoak hobea: Sri Lanka, Papua... nahiz eta batzuk, itzulitakoan ere ez dakiten aurkitzen mapan.

Alternatibak? Pirineoetako edozein bailara aukeratu eta aterpe aterpe zeharkatu. Aste bat edo pare bat izanez gero eta mendian ibiltzea gustuko ez duenarentzat Landetan zehar bizikletaz ibili eta Atlantikoko ur bizietan bainatzeko aukera polita ez galdu. Oporrak eta kirola uztartzea modukorik ez dago eta lagun egokiekin bada, askoz hobea. Bizikletari zakutoak jarri edo motxila hartu bizkarrean eta opor ahaztezinak egin daitezke. Inguruak ezagutu, kirol piska bat egin eta lasai-lasai inongo presarik gabe.

Pelikula famatu hark zioen bezala, bizikletak udarako dira. Lagun artean edo lagunak egiteko ere aukera aproposa da. Opor desberdinak egin nahi dituen animatu nahi dut. Seguru ez dela inoiz damutuko!

Alberto Agirreazaldegia



## Telebista on edo off?

**G**ogorra da oraintxe bertan egiten ari nintzena; zer idatzi pentsatzen, telebistari begira inspirazioa noiz etorriko zain.

Beti entzuten dugu, egitan ohartzen al gara kaja horrek sor diezazkiguen kalteez?

Agian konturatzen gara telebista ikustekak bista kalte dezakeela baina ez dugu guri gerta dakigukenen usten. Egia da begiek telebistaren eragin txarra asko nabaritzen dutela, hala ere badaude telebistak pertsonengan sor ditzazkeen beste kalte batzuk ere. Kalte hauei, nire iritziz, ez diegu ematen daukaten garrantzia.

Telebista sortu zenetik asko aldatu dira familiarteko harremanak: Gaur egun familia askok kutxa horri begira bazkaltzen, gosaltzen... dute ia hitzik ere trukatu gabe. Bazkal ordua lehen, famili guztia elkartzen zen unea zen. Guztiak kontu kontari aritzen ziren, ez orain bezala.

Bestalde, telebistari begira orduak pasatzen ditugu, denbora hori beste gauza askotan pasa genezakeela konturatu gabe. Adibidez askoz hobea izango litzateke irakurtzen, kirola egiten... egongo bagina pelikula Amerikar horiei begira beharrea.

Gure imaginazioaren galera eta telebistako eskenak imitatu nahia ere badira. Telebistak gure irudimena mugatzen du. Umeen dibertitzeko moduak ere orain irudimena bezela mugatukoak dira. Estatu Batuetan ikus daiteke zer nolako eragina daukaten telebistan botatzen dituzten programa edo pelikula batzuk, dibertsio hutsa gatik jendea tirokatzera helduz.

Telebista gehiegi ikusteak burua jaten du neurri handi batean. Gezurak barra-barra botatzen dituzte eta askok dena sinetsi. Komeni zaiena adierazten dute. Telebista kritikatu dudana arren, ez dut amaitu nahi bertako programa batzuk onak, interesgarriak dela esan gabe. Beraz, telebista disfrutatu nahi baduzue ez ahaztu kutxa bat bakarrik dela.

Geaxi Ezpeleta

### kutxa gizarte-ekintza obra social

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aldizkari honek Elgetako Udalararen laguntza jasotako

Goibeko k.e. Tel. 943 78 90 85 Salbador 7. Kultur Fixtea goibeko@topagunea.com

Gipuzkoako foru aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

### GOJBKOKALE

**Argitaratzailea:** Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarrrieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarrrieta, Olaia Jimenez, Maite Manduluz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Ezenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538. **E-mail:** goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Ibane Abasolo: "batxilergotik oso argi neukan zer ikasi nahi nuen"

Ibane Abasolok betidanik izan du argi zein bide jorratu nahi zuen. Biologiako ikasketak bukatu ostean, prostatak minbizian Adrenamedulina hormonak duen eragina aztertzen ari da doktore tesian. Egun, Chicagon aurkitzen da berak ikertutakoa hango ikertzaileekin gonbaratzeko. Bidaia hau egiteko Ruth Lee Kennedy beka jaso du.

## Zelan erabaki zenuen ikasketa hau egitea?

Nik betidanik izan dut gustoko Biologia eta batxilergotik oso argi neukan zer ikasi nahi nuen. Nahiz eta etxean askotan esan beste ikasketa batzuk aukeratzeko. Gustoko nuena ikasi nahi nuen eta ondo eginez gero aurkituko nuela lan bat.

## Zeintzuk izan dira zuk egindako ikasketak?

Lehenengo Biologiako lehengo zikloa egin nuen, gero Biokimika Lizentziatura, bigarren zikloko karrera bat. Azkenengo urtean Biologia Lizentziatura amaitu nuen.

## Orain zertan diharduzu?

Orain Histologia eta Anatomia Patologikoko departamentuan nago doktore-tesia egiten Adrenomedulina hormonari buruz prostatak minbizian. Helburua da hormona honek minbizian zer egiten duen ikerzea.

Hormona hau orain 8 urte aurkitu zen eta ikusi da biriketako minbiziarekin eta azaleko minbiziarekin erlazionatuta dagoela. Minbizia duen pertsonak hormona hau nibel haundiagoan dauka pertsona osasuntsu batek baino. Prostatak minbizia duten pertsonetan ere konprobatu da hormona hau kantitate haundiagoan dagoela.

## Zergaitik aukeratu zenuen tesi hau egitea?

Biologia amaitu nuenean bigarren aldiz eskaini zidaten aukera bat eta onartu egin nuen. Aukeren artean prostatak minbizia aukeratu nuen, interesantea iruditu zitzaidan eta. Departamentuan zabaltzen zen ildo berri bat zen eta aukera gehiago zegoen lan egiteko. Gainera, prostatak minbizia oso

garrantzi-tsua da ikertzeko, gero eta kasu gehiago agertzen direlako. Minbizi hau gizon helduetan azaltzen da eta bizi esperantza gero eta haundiagoa denez, gero eta kasu gehiago azaltzen dira. Orain arte, beste minbiziak asko ikertu izan dira, eta prostatak minbizia ez da hainbeste ikertu lehenago gizonak ez zirelako minbizi honekin hiltzen. Bizi esperantza motzagoa zenez, ez ziren hainbeste kasu agertzen eta agertzen zirenetan minbiziak ez zuen aurrera egiten.

## Zer egingo duzu Estatu Batuetan?

Chicagon ni ikertzen ari naizen gauza bera ikertzen duen taldea dago. Beraiek lortu dituzten emaitzak eta nik ditudanak ezberdinak dira oso. Emaitzak gonbaratuko ditugu.



**Ibane Abasolo sei hilabete egongo da Estatu Batuetan.**

## Eta etorkizunean?

Chicagora egingo dudana bidaia hau oso garrantzi-tsua da niretzako. Ikerketa mundua gustoko dudana edo ez jakiteko balioko dit. Ikerketatik bizi nahi duenak jakinaren gainean egon behar du bizitza gogorra izango duela, ziurtasun ekonomiko gabekoa gainera. Chicagoko esperientziaren ondoren erabakiko dut nondik nora bideratu nire etorkizuna.

GRUPO  
**IFA**  
Produkturik onenak,  
prezio onenean  
Tel: 76 80 98.  
**ALDI**

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18  
Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

# Udako Kirol Kanpaina: haurrak izango dute eskaintza handiena

Aurtengo udarako, Udaletxeak kanpaina berezi bat antolatu du. Bertan haur, gazte eta helduentzako ekintzak eta hainbat kirol egiteko aukera zabaltzen da, hauen artean: Aerobika, dantza moderna, eskalada eta denbora libre.

Ekintza hauek Uztailaren 4tik 21era izango dira eta Ekainaren 27an amaitu zen izena emateko epea. Aerobika eta multiaktibitatea izan dira arrakasta handiena izan duten ekintzak. Oraindik ere ekintzaren batean izena ematea nahi izanez gero, Udaletxera edo Bolatokira zuzendu. Udara animatua pasatzeko aukera aparta eskaintzen du Elgetako Udaletxeak.



*Begiraleek nahikoa lan izango dute aurten ere.*

**Aerobikeko kurtso berrirako izen ematea**  
Aerobikeko kurtso berrian parte hartu nahi dutenek, botikan dute izen emateko aukera uztailak 28a bitartean. Kurtso berria irailak 4an hasiko da eta ordutegia astelehenetik eguenera 20:00etatik 21:00etara izango da..

## **Jaien balorazioa egiteko bilera**

Eguaztenean, uztailaren 13an egingo da jaietako balorazioa. Gai ugari egongo dira mahai gainean, baina besteak beste, batek izango du zeresana. Goibekokalek jakin du Tafallako alkate ordea Elgetan izan zela tanborrada ikusten eta Parte hartzaile guztiak Tafallara eraman nahi dituela autobusak eta gainontzekoak ordainduta. Proposamen hau garatze bidean dago eta bilera horretan jakingo da gehiago.

## 256 lagun hiru lanposturako

Uztailak 21ean izango dira lehenengo frogak

Udaletxeak behar dituen kirol teknikaria, kultura, euskera eta turismoko teknikaria eta administrazio kontulari postuetara 256 pertsona aurkeztu dira.

Administrazioa eramateko postuak eskatzen zituen baldintzak, aurkeztutakoetatik 100 pertsonak betetzen dituzte, kirol teknika-

ri postuan 52 pertsonak eta Kultura, Euskera eta Turismo postuagatik lehian 104 pertsona arituko dira. Guztira 256 pertsona izango dira beraz, lanpostuak eskuratzeko aukerak izango dituztenak.

Kontulari eta kirol teknikari lanpostura aurkeztu direnak, uztailak

21ean izango dute lehenengo froga. Froga hau euskarazko idatzizko maila betetzen duten jakiteko izango da. Uztailak 28an euskarazko ahozko froga izango dute.

Kultura, Euskara eta Turismo teknikari postura aurkeztu direnek, laugarren euskara perfila izan behar dute. Hau neurtze-

ko irailak 4an izango dute froga idatzia eta irailak 8an ahozko froga.

Froga hauen emaitzak jakindakoan, tribunalak jarriko ditu beste frogengandak. Udaletxeo arduraduradunek irail akabuan edo urri hasierarako lanpostuetako frogak amaituta egotea espero dute.



# Goibeko Kultura Elkartearen batzar orokorra uztailak 18an

Goibeko Kultura Elkartearen batzar orokorra izango da uztailak 18an gaueko 21:15etan. Bertan aztertuko den gai nagusia "ESPALIOIA KAFE ANTZOKIA" proiektua izango da. Proiektuak Goibekokaleko Erredakzio kontseiluaren sustengua jaso ondoren, Batzar Orokorrera eramango da, bazkideei proiektua aurkeztu eta beraien iritzia zein den ezagutarazteko.

Kultura Elkarteak dituen helburuak aurrera eramateko; ekintza askotarako gelan, ikastolaren eraikuntzaren beheko solairuan, kafe antzoki bat aurrera eramatean datza proiektua. Proiektuak izan ditzakeen ondorioak aztertuko dira batzarrean, Goibeko Elkartearentzat eta herriarentzat proiektua interesgarria den ala ez erabakiko delarik.



*"Espaloia" proiektuaren aldeko eta kontrakoak aztertuko dira batzarrean.*

## She mal etrouble alemaniarrak eta Bide Ertzean Gaztetxean



Uztailak 12an gaueko 22:00etan Bide Ertzean taldearen emanaldia izango da Gaztetxean. Aipatu, taldea musikari berriekin etorriko dela, bateria eta gitarra Mikel Erentxun kantari ezagunarekin giran daude eta.

Uztailak 19an SHE MAL ETROUBLE talde alemaniarraren kontzertua izango da. Talde hau Euskal Herrian giran dagoen talde alemaniarra da. Kontzertua gaueko 22:00etan izango da Gaztetxean. **Gurebonua berriro kalean**

Gaztetxeak antolatzen dituen ekintzetan sarrerarik ez ordaintzeko edo beherapenak izateko aukera jarri dute Gaztetxeek. Gurebonua Haizea eta Patxi tabernatan erosi daiteke. Bere prezioa 5.000 ptakoa da, langabetu eta ikasleek bi epetan ordaintzeko aukera daukatelarik. Bono honekin antolatzen diren kontzertu, antzerki, pelikula... sarrera doain izango da. Bazkari, autobus, etab.etan deskontuak izango diren bitartean.

**Jarri zure iragarkia**

Tel:78.90.85

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

# Angiozar bailarako komunikabide egokiak

Angiozarko Bailarak dituen auzo desberdinak osatzen duten komunitatea antzinakoa dela eta aspalditik elkarren arteko bizitza antolatzeko ahaleginu dela bertakoontzat ezaguna bada ere ahalegin horretan zenbait oztopo dituela gaur egun ezin ukatu.

Horrela, azken urte hauetan, elkarrenganako komunikazioak denboran atzeratuak gelditu dira, elkarbizitza eta auzoen arteko hurbiltasuna

na bideratzen zuten hainbat azpiegitura atzeratuta gelditu direlarik, gaur egun bidetxur edo bide hestuak besterik ez direlarik.

Arazo hau nabarmenagoa da Goimendi eta Kalearen artean eta Zabaletamendiko Galarraga baserriak eta Mainddao artean eta Etxebarri baserria eta Kalea bitartean. Berez oso urrean dauden baserriak izanik ondoko beste auzoetatik, komunikabi-

deen egokitze ezagatik kilometro askoko bueltak eman beharrean daudelarik.

Angiozarko Batzarraren ustez, bideen arazo honekin, Angiozar herriak dituen hainbat eskaintza komunitario (eskola, liburutegia, Eliza, frontoia, denda, medikua, gazte lokala,... etabar) komunikazio eskasengatik biztanle hauentzat aprobetxa ezinak dira eta gainera berezko komunitatea zatikatu eta desegi-

tera bultzatzen dute.

Guzti hau kontutan izanik bide lotura berriak egitea proposatzen da. Horretarako herritarren adostasuna azaldu beharra dago eta firma bilketa egingo da uztailaren 4tik hasita etxe guztietara bidaliko den eskaera orria biztanle guztiek sinatuz, beraz denen laguntza eta ardurara eska-tzen da Goibekokale aldizkari honen bidez.

## San Kristobal Jaiak

Ez damutu inor San Ferminetara ez zaretelako joan, baina pekatu haundia da Errekaldeko San Kristobal jaiak etxe ondoan eduki eta bertara ez bazarete hurreratzen momentu baten ere. Hona hemen egitaraua haginak zorrozteko:

Uztailak 7, BARIKUA

- Gabeko 10etan pinu jasotzia San Kristobal ermita aurrean.
- Ondoren txokolata banatuko da.

Uztailak 8, ZAPATUA

- Gabeko 11etan: MUXUTRUK ERROMERIA

Uztailak 9, DOMEKIA

- 12etan: Meza
- Meza ostean kotxeen bedeinkazioa
- Ondoren luntxa jubilatuentzat
- Eguerdian HARITZ eta ENAITZ trikitaliak

Uztailak 10, ASTELEHENA

- 10etan: Meza
- Ondoren kotxe bedeinkazioa
- Eguerdian HARITZ eta ENAITZ trikitaliak
- Gabeko 11etan "IMUNTZO eta BELOKI"rekin ERROMERIA

Uztailak 15, ZAPATUA

- Arratsaldeko 16etan: IV. Tiro-Plato Txapelketa

## Kurtso amaierako jaialdi arrakastatsua

Uda hasierarekin batera eskolak amaitu eta Kurtso bukaera jaialdi arrakastatsua eskaini zuten Angiozarko Herri Eskolako ikasleek. Gainezka egon zen Saloia guraso, anai-arreba eta herritarrekin beteta eta hiru hizkuntzatan egin zuten: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Gurasoentzako pozaz gain, herritar guztientzat ere poztekoa izan zen herritar gazteenen abilitadeak eta urtean zehar egindako lan onaren emaitza ikusteko aukera izatea.

Zorionak guztiei: ikasleei, maixuei eta gurasoiei!!



*Ekitaldiko une bat. Ikasleak taula gainean antzezten.*

# Zer pentsau jatzuz oingo urteko jaixak?



Soneros del Changi  
taldeko partaidea

Asko gustatu jaku Elgetako plazan sortu dan girua. Hemen inguruko herrixetan be ibilita gare baiña Elgetako plazan besteko giroik ez dogu sortu. Beste behin be Elgetan egonda genden, baiña Gaztetxian. Han be oso gusto-  
ra geratu giñan.

Oso ondo egon da gure kontzertua. Gaiñera, oin dala lau urte be egon da genden, baiña oingo urtian disko berrixa dala eta jente gehixau etorri dala pentsatu jata. Bestela anbentia oso ona egon da.

Mikel Gorosabel (30 urte)  
E.H Sukarriako partaidea



Koldo Etxeberria (24 urte)  
Timi-Tarriako partaidea

Elgetako jaixak holakuak diran beste herrixen modukuak pentsau jataz. Horrelako herrixetan egoten dan anbentia nahiko antzerakua izaten da beti. Espero giñuan modukua izan da.




Josu De Vega (40 urte)  
Tanborradako partaidea

Uste dot tanborradian esperientzia hau zora-garria izan dala. Gaiñera dana oso ondo urten da. Jentia oso ondo egin dau dana eta gaiñera eskaintza berezi bat be jaso dogu tanborradiakin beste zeozer egitteko.

Finalian izugarrizko girua egon da. Jaixak dirala eta frontoia "tope" egon da eta horrek asko poztan dau, gaiñera kuadrilla-kuak eta beste jende asko etorri da eta horrek asko girotzen dau gorputza.

Julen Castellanos  
(21 urte) Pelotarixa



Jaixak oso ondo irten dirala uste dot. Oingo urtian jentia kalera eterratia lortu da. Beste aldetik, taluan postuari dagokionez, oso pozik ibili gaz lanian eta gaiñera eskertzekua da batezbe, Elorrixotik laguntzera etorri dan jentia, Gloria Barrero eta Enkarna neure amai be eskerrak, eurak barik ezingo zan ezer egiñ eta.

Miren Añotegi (33 urte)  
Feriakako laguntzaila



Kartetan jokatzeko giro egokia

W.C.

Tel: 768093

Kopa bat

**Paxi Taberna**

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297



ARIES: Dana amaitzen dok/don eta jaixak be bai, baiña lasai ondiokan hasi besteik ez dittuk/dittun egiñ eta.

.....

TAURUS: Txakur zaunkia emoten jok /jon hire berbetiak; zaindik/zaindiñ hiretako be hobe izango dok/don eta.

.....

GEMINI: Egunak luzatuz joiazak/joiazan eta argittasun gehixau eukiko dok/don hire biharrak amaitzeko.

.....

CANCER: Ezik/ezin begiratu atzera arazon bat aurrian dakakenian/dakanian. Gauzak burrukan egindda lortzen dittuk/dittun.

.....

LEO: Bixkorra haiz benetan, baiña ez hoi bixkorregi gauza onerako? Jarri patxadaz eta hartu denporia pentsatzeko.

.....

VIRGO: Eguneroko bizimoduak erakusten dua/dona zelako krudela dan gizartia, baiña hau aldatzia nahi ezkeru holakuak milla ikusiko dittuk/dittun.

.....

LIBRA: Demaseko irudimena dakak/dakan baiña sarritan ez dakik/dakin nun eta zelan erabilli.

.....

ESCORPIUS: Biharra bakarrik eginda ezin dok/don personia bizi. Honekin badakik/badakin zer esan gura dan, ezta?

.....

SAGITARIUS: Ez dok/don gauza askoik bihar pozik egoteko: etxia, autua, bihar ona, biaje ederra...

.....

CAPRICORNIUS: Hik dakaken/dakanan bixamonia pasatzeko beste aste bete bihako dok/don. Zaindu noiz egin bihar haiz ba?

.....

AQUARIUS: Hemen bizitzia nun bizitzia dala uste dok/don? Hemen danok ezagutzen gaittuk!

.....

PISCIS: Jentian sentimentuekin hara ta hona ibiltzia oso arriskutsua izan leike. Hori terrenuoi kontuakin erabili bihar izaten dok/don.

.....

## Igor Fernandez Elorrixoko tanborradako zuzendarixa

**Zer pentsatu jatzu Elgetako Tanborradia?** Horrenbeste ensaio egiñ eta gero ondo urten biharra euki dau.

**Tanborradako pieza bat esatekotan?** Alaiena idiarena eta Polka eta Elorrixon Elorrixoko martxia.



**Elgetako ala Elorrixoko jaixak?** Duda barik, Elorrixokuak.  
**Definidu zure burua bi hitzetan;** umilla eta alaia.  
**Tanborraz aparte beste zerbaitt joten dozu?** Bai, txistua. Asko gusatzen jatana dantzia da.  
**Tanborra joteko sekreturik bada-go?** Ritmua eruatia.  
**Jaixetatik gehixen gorrotatzen dozun zeozer?** Jentia jaixak dakan alaitasunana ahaztu egitten dabela eta azkenian alde illun bat etaraten dotsala.  
**Nun aurkitzen dira neska polittak?** Euskal Herri guztian.  
**Noiz Elgeta eta Elorrixo arteko tanborradia?** Elgetakuek esango dabe Elgetako jaixetan eta Elorrixokuek "por los cojones".  
**Zure betiko amets bat:** Euskal Herrixa nazio bat izatia espainiatik aparte.  
**Zer pentsatzen egoten zara tanborra jotzen dozun bakoitziarian?** Gehixen bat nere familiakin pentsatzen dot, zer nere familia beti egon da hemen munduan sartuta nere aittitagaittik hasita.  
**Nora juateko asmua dakazu oporetan?** Oindio ez dakat pentsauta.  
**Uste dozu Elgetako Tanborradiak segiduko daban esperantzia euki geinkela?** Bai, ze jentia ilusiño haundixakin ikusten da.  
**Gustoko musika talderik?** Eric Clapton, Su ta Gar ... asko dauzkat.

Berezitasuna:

Buztana.

Pintxo gozoak  
ortartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak


Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

# "La Bomba": tanborrada

Aurtengo jaiek zerbait berezia izan badute hori tanborrada izan da. Alexen gidaritzapean herritarren %13 bildu zuen ekitaldia. Batzuk tanborra dotore joten, beste batzuk euren onena eman ezinik... eta herriko biztanleen beste %90 Elgetako "artistei" begira. Tafallako Udaletxeko ordezkariak ere hurbildu ziren, eta ikusitakoa ikusirik, datoren urtean Nafarroako herrira jotzera joateko gonbitea luzatu zuten. Ez dago gehiago eskatzerik ohitura zahar honen berreskurapenean parte hartu duten herritar guztiei.



**ELKORO TORLOJU LANTEGIA**  
**DEKOLETAIA ETA**  
**ELJAZIO SISTEMAK**

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta  
 P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
 Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

**IBAIBA-**  
**RRIAGA**  
 GARRAIOAK

Tel: 768072  
 Salvador zeharbidea 2  
 ELGETA

**E**  
**HARATEGIA**  
**A**  
**S**  
**T**

San Roke 6  
 tel: 768168.

# SEAT LEON **BERRIA**



***BERRIA** benetan  
izango zena sortu nahi genuen.*

***Emaitzak aho zabalik  
lagako zaitu.***



**Eibar Motor, S.A.**

**Deba Beherako Seat Zerbitzu Ofiziala**

**Otaola Etorbidea, 17 - EIBAR**

**Tel. 943 12 18 00 - Faxes. 943 70 18 46**

**Auto kopuru mugatua. Kilometro 0. Ibiza, Cordoba eta Leon. Gasolina eta Dieselak.**

**PEUGEOT  
206**

**BERRITU  
ZAITEZ!!**

**...etorri  
autoa ikusi eta  
probatzera!!!**



**EKIPAMENDUA**

- ✓ Lagundutako direkzioa
- ✓ Itxidura Zentralizatu
- ✓ Jasogailu elektrikoa
- ✓ Airbag Bikoitza
- ✓ Bolantetik kontrolatutako irratikasetea
- ✓ ... eta askoz gehiago

Aurreikuste Plan Ofiziala eta Beherapen Promozionalak barne. Eskaintza hau stock-ean ditugun ibilgailuentzat edo ditugunak amaitu arte dago indarrean. (Eskaintitako ibilgailua: 206 XR 60 ate).

**Etormobil**

Otaola hiribidea 22. EIBAR.  
☎ 943 200 996 Faxa. 943 203 627

**206**



**PEUGEOT**


**LAGUNMOBIL**

**C A R R O C E R I A S**



Lantalde profesionala ■ Ardura handiz egindako konponketak ■ 1.000 m<sup>2</sup> instalazioetan

**KOKAPENA**



Olaso Poligonoa (ELGOIBAR)



**LAGUNMOBIL**  
**C A R R O C E R I A S**


Telefonoa: 943 74 44 30 Faxa: 943 74 44 36



# ALDIBI AUTOAK, S.A.



## "NISSAN ALMERA BERRIA. GOZATU IBILBIDEA"



**Aldi bi**

Olaso kalea, 23  
20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 20 37  
Faxa: 943 74 35 24

Zigarrola, 1  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 20 02  
Faxa: 943 79 65 65

## "GOZATU IBILBIDEA. GOZATU SANJUAN eta SAN PEDRO JAIK"

# Aukeratu zure auto berria

**OPEL** 

**HYUNDAI** 

**MAZDA**

## ESKAINTZARIK ONENA



**MENDARO AUTOAK, S. A.**

EIBAR: Otaola, 27 • Tel: 943 20 60 00

ELGOIBAR: Olaso, 27 • Tel: 943 74 32 00

DONOSTIA: Zumalakarregi, 1 • Tel: 943 31 22 00



**ANALSA**

EIBAR: Otaola, 27 • Tel: 943 70 08 41

ELGOIBAR: Olaso, 25 • Tel: 943 74 40 12

Faxa: 943 74 32 08

MENDARO: Plaza auzoa, z/g • Tel: 943 75 50 72



**NIPON AUTOAK, S. A.**

EIBAR: Otaola, 27 • Tel: 943 70 13 82

ELGOIBAR: Olaso, 27 • Tel: 943 74 02 00

DONOSTIA: Satrustegi etorb., 1 • Tel: 943 31 23 55



## Gidatzeko Karnet Guztiak

# SOLOZABAL

## autoeskola

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenan.
- Klase teorikoak ikusentzuzkoen abantailak erabilia.
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko nazioarteko agentzia ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



TORIBIO ETXEBARRIA 5 - 1. Tel. 943 70 23 84



Baina ez da tanborrada izan jaiak izan duten ekitaldi azpimarragarri bakarra. Ostegunean, azken urteetan legez, mozo-rrero ugari. Umeak, euren eguna aprobetxatu behar eta, lehen unetik, jokulandian gozaten. Beste egunetan ere ezin esan gaizki ibili direnik. Iluntze aldera, poteoaren ondoren afari herrikoia. Aurten, estrainekoz, ostegunean. Pregoiean, Sebastian Arantzabal, Jose Inaxio Erostarbe eta Asier Castelos elkarten ordezkari gisa (Mendi mendiakoa falta izan zen). Hortik aurrera, gogotsu, biaramuna heldu arte. Barikuan, gazteen eta jubilatuen eguna. Batzuen eta besteen bizitasuna ikusirik nor zein den jakitea ere ez zen lan erraza. Batzuk, argitu orduko batetik bestera. Besteak, eguzkiaren agurrarekin batera, dotore-dotore kalera. Zapatuan eta domekan zeresanik ez, ildo

**ZABALA**

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201




**HERMANOS S.A.**

**EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA**

Elgetarrak izan du bai non aukeratu. Egunez, era guztietako emanaldiez gozatu ahal izan du. Jokulandiarekin hasi eta Deabru Beltzak eta "Inkieto" antzerki taldeetaraino, Gelatxo, zezena -oraindik bada zezenaz oroitzen denik-, bolok, erraldoiak, lau t'erdiko finalak, azoka eta Tirri-Tarrak eskainitako ikuskizuna ahaztu gabe. Eta gauean, era guztietako kontzertuak eta... "La Bomba". Udako kantua behar-bada ez, baina Elgetako jaietako gutxienik bai. Gehiegizkoa dela? GoiTB ikusi besterik ez duzu, jai guztien berri eman baitute Ainara Iribar eta Iban Arantzabalen eskutik. Datorren urtean gehiago.



**HAIZEA**  
**TABERNA**



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.  
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA**  
**ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.  
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE**  
**ETA BAINUGELETAN**



# Ferixa Nagusiko jaixak 2.000

## Parte hartzea eta emanaldiak kalera

### Aste askotako lana da jaixetako egitaraua osatzea



Aurtengo jaiak ospatu ondoren, jai hauek zehar burutu diren lanak aipatzea bururatu zaigu. Aurtengo jaien batzordea osatu zenean, lehengo aipamenak jaien funtsa argitzea izan ziren. Alde batetik, jaietan herritarren parte hartzea bultzatzea lortu nahi zen eta bestetik, jaietako ekitaldi guztiak KALEAN burutzea.

Parte hartzearekin batera, bai herritarren eta baita batzordekideen bolondres lana behar beharrezkoak izan dira jaietako lau egunetan zehar. Aurten, ez da diruz ordaindutako langilerik egon jai egunetan zehar, batzordearen erabakiz.

### Burutu beharreko lanak

Eguenean hasiz gero, gauean egin zen afarirako prestaketak egin ziren, arratsaldean mahaiak eta ahulkiak ezarri, eta gauean, afaria zerbitzatu eta ahal zen txukunen laga plaza.

### Barikuan

### Musikarien doinuak afinatzen nahikoa lan izaten dute teknikariek



berri z, zezenak hasi aurretik ingurua bailaz ziurtatu beharra izan zen eta ondoren berri z, guztiak bere lekuetara eraman. Lan hau, zapatuan ere burutu beharra izan zen.

Zapatu gauean, tanborradako afaria zenez, beste talde batek, mahaiak eta ahulkiak ipini zituen, eta iluntzean, mahai-tres-

nak eta janaria zerbitzatea izan ziren. Bai afari batean eta baita bestean ere, afarian egon zirenak denen artean jaso zituzten erabilitako gauzak.

Tanborradako garaian ere, paineloak ipintzeko, trafikoa zuzentzeko, bandakoei afaria emateko elkarte-kideen laguntza... aurrez berba egindako pertsona konkretu batzuk burutu zituzten lanak.

### Azkenik

eta jaietan

lanik

neke

tsuena

tako

bati

izan

ohi den

azoka

eguna

egin zen.

Goizean eguzkiak

lehen printzak

atera orduko, jende multzo

batek,

mahaiak ezarri zituen azokara bertaratuko ziren partehartzaileek beraien postuak ezartzeko. Bestetik, abereak bere lekuetan ipintzeko, bailak eta soka luzatu ere egin zituzten.

Orokorrean, lan nabarierik izan diren beste lan ez hain bistakoak ere egon diren. Batetik, nahiz musika talde zein antzerki taldekoekin aurrez tratua egin, beraiekin egon bai harrera egiteko eta baita behar ziren azalpenak emateko. Kantu poteoa egiteko abestiak prestatu eta momentuan banatu. Dantza taldea antolatu eta kanpokoekin harremanak egin...

Jaiak antolatzeak urtero ematen du lan handia, eta aurten ez da izan gutxiagorako.



Goibekokaleren alde talo egiten aritu ziren goiz gozetik

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M<sup>a</sup> Jesus Arrazola

**VIVO**

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta


Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

**TAPEM, S.A.**

Trokelak eta estanzazioa

TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

# Lehtaketa




Ez dakigu jaixetan egotiagaittik izan dan edo ziharo alpertuta zagozielako. Dana dalakuagaittik, ez dozue gutunik bialdu eta ezin ba kamistaik emon. Gaiñera, pentsatzen giñuan kamiseta barrixak emotia eta zelan ez dozuen ida-tzi, ba iñok ez dittu eruang.

Erretratuan zeguan rock taldia Su ta Gar zan eta seguru batek baiño gehixauk asmauko zebala. Balitteke zail xamarra zala ustia, hala izan ez deixen, oinguan errez-erreza ipini dogu. Zein da kazetari lanak egitten ibilli zan hau?

Erretratukua asmau ostian bialdu kartatxo bat edo e-posta bat betiko lekura. Goibekokale aldizkaria, sal-bador 2 Kultura Etxia edo goibeko@topagunea.com helbide elektronikora.

Ia oinguan zorterik badagon.



# Elgetako futbito txapelketa Vicios-endako

Txapelari 3 eta 1 nagusitu zitzaion

Elgetako futbito txapelketako finala jai aurreko zapa-tuan jokatu zen. Bertan Elgetako Txapela eta Durangoaldeko Vicios izan genituen lehian. Txapelak ezin izan zuen aurreko urtean bezala garaipena lortu. Joku aldetik partida orekatua izan zen, baina elgetarrek lehenengo zatian beren atean sartutako bi golek partiduaren geroa finkatuko zuten. Zorte txarra izan zuten Txapelakoek, izan ere partidu hasierako ordu laurdenean sartu zituzten bi golek beren atean. Bigarren zatia hasi eta bereala Txapelak gola sartu zuen. Honela egon ziren partidu azkenetararte. Aipatzeko Txapelako Koldo atezainak egin zuen papera, berak egini-ko geldituei esker 2-1 eko emaitzarekin iritsi ziren azken minuetara. Bitartean Txapelak golak sartzeko aukera asko galdu zituen. Azkenean, partidua amaitzean Vicios-ek lasaitasuna emango zion gola sartu zuen azken minutuan. Bestalde txapelketako goleatzaile nagusiaren saria Vicios-eko "Toro"-k eskuratu zuen.



Vicios-ek elgetako txapelketan parte hartzen duen lehendako aldia da.

## Rebeka Ubera, hiru handietan lehendabiziko neska izan zen

Rebeka Ubera bi urtetik behin egiten den hiru hadien mendi martxa amaitzen lehendabiziko neska izan zen. Elgetatik Rebekaz gain Aitor Ikatza-rekoa eta Jose Luis Egiza-

balek parte hartu zuten. Guztira 550 mendizalek hartu zuten irteera Zalduondotik hasi eta Otxandixon amaitu zen mendi martxan. Gaueko hamabietan atera ziren partai-

deak, lehendabizi Aizkorri (1528m.) igo zuten, jarraian Anboto (1331m.) eta azkenik Gorbea (1481m.). Guztira 92,5km.ko ibilbidea egin behar izan zuten mendiza-

leek. Rebekak, 18 ordu eta erdian egin zuen ibilbidea. Amaierarako sailkapen orokorrean, (mutilak eta neskak barne) 33. amaitu zuen.

**IRAMA**  
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
tel. mugikorra: 619692336  
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

# Julen Castellanos "ETB kantxa" 4'terdiko txapelketan nagusi

Azken momentuan deitu zuten Saralegi lesionatuaren lekua hartzeko

Julen Castellanos Alzarrak irabazi du aurtengo Elgetako lauterdiko txapelketa 23 urtez azpiko mailan. Castellanosek azken momentuan min hartua zegoen Ekaitz Saralegi ordezkatu zuen finalean. Saralegik, jokatu ezin izan zuen arren Castellanosen botilero gisa aritu zen. Castellanosek oso partida itxurosoa egin zuen eta Mendiluze altsasuarra (duela bi urte kadeteetan irabazlea), 14an utzi zuen. Partidu hasieran Mendiluze aurretik joan zen arren, zortzina berdindu zuen Castellanosek Mendiluzek sakez egindako falta bati esker. Hemendik aurrera Mendiluzeren beherakada etorri zen. Pilota asko galdu zuen bai erretoan eta bai joakoan ere. Bazirudien Mendiluze eskutatik gaizki zebilela.

## Kadeteetan nafarrak

Kadeteetako finala nafarren artekoa izan genuen. Batetik, Garziandia etxarriarra eta bestetik Arrastoa iruritarra. Maila handia eman zuten bi pilotariek, baina Garziandiak jokatu zuen ondoen. 22-15 irabazi zuen azkenean.



**Castellanos:**  
**"Bezperan esan zidan  
 aitak finala jokatu  
 behar nuela eta ez  
 nion sinistu"**



**- Noiz jakin zenuen finala jokatu behar zenuela?**

Ba egia esan, atzo(uztailaren bata, finala 2an izan zen) eguerdiko ordubiterditan. Lanetik etorri nintzen eta aitak Elgetan finala jokatu behar nuela esan zidan. Ez nuen sinistu ere egin.

**- Zer moduz hartu zenuen berria?**

Ba esan zidatenean oso-oso urduri ipini nintzen. Etxean nintzen eta bazkaldu ere ezin izan nuen egin.

**- Beraz ez duzu inolako prestaketa berezirik egin final honetarako?**

Ez, ez. Astean zehar ia ez dut ezer egin. Finala jokatu nuela jakin nuen egun bertan ere partidu bat neukan eta jokatu egin nuen. Finalera partidu hori jokatu eta etorri naiz eta piskat izututa etorri naiz eskuak kargatuta izango nituen beldur bainintzen.

**- Espero al zenuen txapela irabazi zene-**

**zakenik?**

Espero, hori ez da espero jokatu egin behar da aurretik. Eta orain irabazi eta gero amets bat da. Gero Elgetako torneoak beti ipintzen dizu horrelako urduritasun bat. Elgeta hitza beti entzunda, neretzako amets bat zen hemen irabaztea. Pelotari on askok irabazi dute hemen.

**- Zer sentitu zenuen erdifinaletan Mendiluzeren aurka galtzean?**

22-19 galdu nuen eta disgusto pixka bat bai hartu nuela. Gainera, partidua irabazi nezakeen. Hasieran oso nerbioa atera nintzen eta sakez bi falta egin nituen. Gero, azkene-rako, nekatuta nintzen eta penaz geratu nintzen. Beno, pena eta poza aldi berean, izan ere honelako torneo baten hasita ez duzu espero horren urrutira iritsi zaitzkeenik. Eta gero finalera iritsi eta irabazi... zer esango dut ba.

**- Profesionalerako**

**saltoa gertu ikusten duzu? Badakizu hemen irabazten duten gehienak igotzen direla profesionaletara.**

Nik horretan ez dut pentsatzen orain, etortzen baldin bada etorriko da, burua nahastu gabe. Nik orain afizionatu mailan badauzkat partidu batzuk, ditudan partidak ahalik eta hobekien jokatu ditut ahal bada irabaziz.

**- Zenbagarren aldia da txapelketa hone-tan parte hartzen duzula?**

Orain dela hiru urte hasi nintzen jokatzeko. Aurreneko urtean bigarren txandan kanporatu ninduten. Iaz berriz partida bat irabazi eta bigarrena suspenditu nuen eskutatik gaizki nenbilelako eta udarako zaindu nahi nituelako. Aurten eskutatik ondo etorri naiz, negu partean ez dut arazorik izan. Aurtengoa nire "lan-zadera" esaten dana izan da.

# Arangurennek garaipen garrantzitsua lortu zuen Arrate gainean

Gipuzkoako itzulian parte hartu berri du eta aurki Bizkaikora doa

Xabierrek pasa den ekainaren 4an denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen Eibarren. Eibar-koa Gipuzkoa mailan egiten probarik garrantzitsuenetako bat dugu. Lasterketak 70 km.ko ibilbidea zeukan eta Arrate gainean amaitzen zen. Aurreneko kilometroak lauak, Eibar inguruan lastertu ziren Arrateko maldak igotzen hasi aurretik. Xabierrek hasieratik ihes egin zuen beste bi txirrindularirekin. Bi txirrindulari hauek alboan izan zituen Arrateko malden hasierate, orduan Xabier buruan ipini eta gogor tiratzen hasi zen. Bere bi iheskideek ezin izan zioten bere erritmo gogorrari jarraitu eta berehala utzi zituen atzean. Piskanaka tartea handitzen joan zen eta helmugan 45 segunduko

aldea atera zion bigarrenari.

Gipuzkoako jubenil mailako itzulian ere parte hartu zuen, baina kasu honetan zorreak ez ziongehiegi lagundu. Itzuliko bigarren egunean Mandubia jeisten erori egin zen eta gorputza mindu zuen. Hala ere hurrengo egunean atera zen lasterketan. Etapa honetan, mendate hasieran izan zuen zulaketa batek ere ez zion mesede egin. Lau garren egunean bere haurrean izandako erorketa batek ere denbora galarazi zion. Hala ere, sailkapen nagusian 35. amaitzea lortu zuen. Bestalde, uztailaren 13an Bizkaiko jubenil mailako biran parte hartzeko gonbidapena jaso duen Gipuzkoarretako bat da Xabier. Itzuli honetan ez da SUMOFI-Cen izenpean jardungo,



Xabierrek mendiko saria ere eskuratu zuen.

BILBOBICI taldearen partaide izango da.

## Elgetako lasterketa

Uztailaren 16 zapaut, 15:30etatik aurrera lastertuko da Euskal Herriko mendi kriteriuma. Antolatzaileek aurreko urteetan baino txirrindulari gehiago egotea espero dute Elgetako irteran.

Oraindik zeazteke dago baina Katalunia, Madril eta estatuko beste talde batzurekin harremanetan dihardute. Frantziatik ere talderen bat ere espero dute ekartzea. Euskal Herriko afizionatu mailako taldeetako ordezkariak ere bertan izango ditugu.

## Joane Somarribak aurten ere irabazi egin zuen Elgetan

Elgetak lasterketa amaiera eta hasiera bat hartu zituen

Iaz Elgetako helmugan Hanka Kuphernaghelen aurrean lortutako garaipena baino errazagoa izan du aurtengoa Joane Somarribak. Iaz gutxigatik irabazi zuen arren, aurten Elorriotik Elgetarako krono igoran erraz nagusitu zen. Alde dexente atera zion bigarrenari. Munduko txirrindulari onenatarikoa ikusteko aukera izan genituen. Horien artean genuen munduko txapelduna den Van Morsel.



Joanek, lau mailot jantzi behar izan zituen bata bestearen ostean.



## "Ehiztarixen erotika"

sinistu normalian. Kontrakorik be ez daukaguz zer egingo dogu, ba?

Ba al daki inork zergaitik dantzatzan daberen indixuak bueltan-bueltan? Teoria zabalduek diñe Amalurrarekin bat egiteko edo horrelako zerbaitengatik dala. Pentsatu dozu inoiz zer gertaiko zan bueltan-bueltan dantzatzan egin barik beti aurrera zuzen-zuzen dantzatzan egingo balebe? Ba, joan da joan, eta momentu baten ez zebela musikarik entzungo.

Zirkuluak Amalurrarekin lotzen dira, eta horrekin lotutako beste teoriak bat euskal antropologo eta enologo baten Ehiztariaren erotika liburuan jasotzen da. Egileak, basurdetari kuadrila batekin kazen denbora bat ibilli eta gero, ikusitakoaren gainian teoriak batzuk ateratzen ditu. Eta horietako bat da basurdak harrapatzeko kazariak zirkulu bat egiten dabela eta horrek lotura dauka Amalurrarekin. Nik ez dakit lotura daukan edo ez, dakiteten bakarra da, parajiaren eta zenbat kazari daozen ara-


bera bueltia hartuko jakola edo ez basurdak "ustez" daozen parajari. Dударik ez bueltia hartzia hobe dala, eta hiru hillarakin ahal izan ezkerro hobe gaitera, baiña ez horren azpitan Amalurrarekin nolabaitteko loturaren bat dagoelako, bestela errazago ospa egingo zebelako. Poliziak be baten bat harrapatu nahi daberen bueltia hartzen badotse errazago harrapatuko dabe, ez?

Hortik zihar zoiazienian, dibertidua izan leike giak horrelako teoriak eta bestalako gauzak kontatzen dotsuen bitartian norberak beste teoriaren bat asmatzia. Eta ezer ez dakiten norbaiti kontau ezkerro sinistu be igoa. Laga libre imajina-xiña.

Enrike Gorrotxategi

Gure inguruetan behintzat, horrelakoa egiten jarraitzen daberen ez dau jakiten zergaitik dan, edo gehixen be, adibidez, jainkoren bati zerbait eskatzeko dala, bai, baiña hortik aurrera ezer gutxi. Jakin leike gurutzetia uzta ona jaso eta harririk eta ez egiteko dala, baina ez dau jakingo zergaitik erabiltzen daberen elautza eta erramua. Hori antropologuen eta antzerako ikerlarixen bihara da, asmauko ditue teoria polittik horretarako: elautza irabazleen ikurra dala, erramua usain goxokoa edo horrelako zerbait. Eta azkenik, bide batetik edo bestetik, giak edo liburuetatik guri aillegauko jaku, eta guk

### Ba al daki inork zergaitik dantzatzan daberen indixuak bueltan-bueltan?



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009

**SISTECO**

**erraminta makina**

Juan Luis Berechinaga  
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire giro-  
tua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

M<sup>a</sup>  
**ESTHER**  
Tel: 76 81 67



## Asto karrera jaietan

Aurtengo jaietan tanborradiak, Tirri-Tarra fanfarrian emanaldixak eta jaixei hasieria emon zotzen txupinasuak makiña bat jende batu dau plazan. Lehenau egitten ziran beste ekitaldi batzuk be, jende mordua batzen zaben plazan.

Herriko mutil gaztiekin, jaiak aurretik gertatzen zittuen baserriko astuak karreran parte hartzeko. Argazkixa 1.977. urtekua da, asto karrera plazan hasi eta amaittu zan, pagatza ostetik bueltia egin eta gero.

Hemen urtian Arantzabal txikixak eta kuadrilakuek karrera grabau nahixan "dos caballos" batera igo ziran kamara eta guzti. Parte hartzaileen artian Jose Agustin Beretxina bazagola badakigu, Lapurdiko astua be ederto ibilli zan karreran. Ez dakiguna da karrera zeinek irabazi zaban, hala eta be badakigu karreran irabazittakua ez zala izan astuai korta eder bat egitteko. Premixuakin irabazliak juerga ede eta luze batekin bukatu zanab eguna.



Zurritzat,  
bidalketa sistema  
fidagarri bat edukitzea  
ez da aukerarik garrantzitsuena.

## Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT  
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,  
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ  
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN  
MERKATURATZEA NAHI DUZU.  
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK  
BETE BEHAR DITUZU,  
ALDI BEREAN HAUEK ERE  
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.

BIDALKETA,  
ZEURE NAHIAREN ARABERA  
EGITEA ESKATZEN DUZU,  
BESTERIK EZ.

HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI  
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,  
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK  
GARAIZ BETE DITZAZUN.  
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA  
ATEZ ATE BANATZEN,  
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA  
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,  
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



**GUIPUZCOANA**  
**EURO EXPRESS**



*Beti garaiz.*

AENOR



Enpresa  
Erregistratua

ER-0626/2/97



ISO 9002